


GEHIGARRIA ITZIAR AJURIARI ELKARRIZKETA
KULTURA SINOUSE ETA URTAROEN HOTSAK IKUSKIZUNA, GAUR, HILAK 20

BARREn

ASTEKARIA

EL GOJIBARRKO ASTEKARIA · 2004ko otsailaren 20a/XII. urtea/477. zkia



Badatoz inauteroak!


"GIZADIA EZ DA ERREALTATE GEHIEGI JASATEKO GAUZA" (Eliot Thomas)

zatoz
ikastolara!

Matrikulaketa epea:
otsailaren 16tik 27ra



elgoibar ikastola
☎ 943 744441
elgoibar@ikastola.net





Kontu! Udala tranpetan berriz ere?

Denboran harrapatua egotearen irudipena daukat. Ez al zuen Gaztetxearen kontuarekin Guillermo Garate alkate ohiak, Maribi egiten ari denaren berdina egin? Tranpak? Zertara dator orain, duela hainbeste denbora hitzartutako akordioa atzekoz aurrera jartzea?

Noren erabakia izan da errepidearen beste aldean, Guass-aren alboan, Gaztetxea kokatzearen kontu hori? Leku okerragorik ezin duzue aukeratu? Ez dakit... Foru Aldundiak eraikiko duen ur araztegiaren alboan... Olasoko industrialdean...? (isil nadin, ez ote dituzten ideiak berenganatuko). PNVko zinegotzientzat, haien kargua herritarren zerbitzura dagoela ulertzea ezinezkoa dela aipatu zidan ezker abertzaleko zinegotzi batek etsipenez. Gehienak, botoak jasotzea, erabakiak arbitrarioki hartzeko eskubidea ematen diela sinistuta bizi direla: hau da nik uste dudana, botoak nireak dira, beraz nahi dudana nahi dudana modura egiteko eskubidea daukat.

Eta gainontzeko arazo guztiekin bezala, horretan datza Gaztetxearen auzia: gazteentzat onena nahi badute, haien iritzitari jaramon eginez eta haiek esandakoa errespetatuz hartu behar dituzte hartu beharreko erabaki guztiak, eta gaizki hartutakoak ere atzera botatzeko gai behar dute izan. Jaun andreok, borroka honetan izerdi asko utzitakoak gara, eta bide txarretik goaz, urteak igaro arren horrelako jokabide okerrak errepikatzen badira. Gaztetxeak gazteena eta gazteontzat egin behar du izan, eta inork ez digu hori ukatuko.

Lorea Perez de Albeniz



Filologo baten ajeak

Filologo izatea erabaki nuen. Ikaragarria, hitzaren bi zentzuetan, hau da, zoragarria eta zoratzekoa. Txikitatik erakutsi digute “letretakoak” astialdiko kontuak direla, letren munduak ez duela dirurik ematen (hori zerbait bada). Askotan entzun izan dut azkarrek, jakintsuek enpresaburu edo ingeniari, arkitekto, sendagile edo epaile (kasurik onenetan) behar dutela izan. Bada horrezaz guztiaz gain, nik letren bide “pobrea” hautatu nuen. Beste mundu batekoa ote naizen galdetzen diot neure buruari, izan ere, nik ez dut bereizkeria horren frogarik inon ikusi.

Auzotar baino gehiago den bati entzun diot (enpresaburua bera), arkitekto eta ingeniariaren ikasketak mundu arrunt honetatik gaindi dauden pertsonentzako direla. Hori zioen bitartean ez zidan begietara begiratu, nola bada? Ni filologian lizentziaduna naiz eta. Errespetuaren mesedetan eta amak erakutsi zidanari iruzur ez egitearren edo ez nion ezer esan.

Arkitekto bat aukeratu dut bizilagun. Arkitekto izan nahi zuen bati entzun nion behin arkitekto on batek artearen gozotasuna erantsi behar diola eraikinen zurruntasunari. Nire bidaidearen gozotasun horrek gatibatu ninduen ni, etorkizunean dirutza handirik ekarriko didan erreparatu gabe. Orainsu, euskalgintzan eredu den pertsona batekin egin dut topo. Ingeniari ikasketak egin zituen. Goitik beherako ingeniaria letren mundua ezagutu eta zoratu, maitemindu zena. Ordu ezker, euskararen inguruan egin ditu bere bizitzako urte gehienak.

Zin dagit zientzietako jendea eta letretakoa ez ditudala inoiz bereizi izan. Baina egoerak bultzatuta, nire bidean lerratu nahi duenari adore ematera behartuta nago ezinbestean.

Heldutasunaren eta zorionaren mugak jar ditzala norberak. Enpresaburu hari nire zorionaren atal bat eman nahi nioke, hura eskatu baitzidan begietara begiratu ez zidanean.

Ainhoa Lendinez

Kexak	5
motZ MotZ.....	8
gehogarria	13
kiRolak	20
aGenda	24

ALKOHOLAK GARAPENA ERAGOZTEN DU

Espainiako helduen %60ak eta 14 eta 18 urte bitarteko gazteen %20ak baino gehiagok alkohola kontsumitzen du. Munduko kontsumoan zazpigarren lekuan daude. 20 urtera arte alkohola oso kaltegarria da, 13 eta 15 urte bitartean, batez ere. Burmuina ez dago oraindik guztiz garatua, eta alkoholak neuronak deusezen ditu. Ikasterako orduan zailtasunak sortzen dira, memoria galera, hiperaktibitatea eta gainontzekoekin erlazionatzeko arazoak. Mozkorraldia, gibelari eragiten dion kontsumo kronikoa baino okerragoa da burmuinarentzako. Intoxikazioak arnasa eta bihotza gelditu ditzake, heriotza bultzatuz.

2003ko uztailaren 25ean Mensajero aldizkaritik ateratako datuak dira.

Alkoholaren gainean emandako argibideez gain, beste gauza asko esan daitezke. Alkoholak odola erre egiten du eta zenbat eta gehiago ohitu, efektua egiteko gero eta gehiago edan behar da, efektu gutxiago sentitzen den arren. Azpi jana ordea, barrutik egiten ari da. Eta kalteak argi ikusten dira. Gidatzeko esate baterako, edan duenak ez du balio, eta ondorioak betirako geldituko dira.

Hasieran mesede egiten duela dirudi, baina hori ez da egia, handia baita osasunari egiten dion kaltea.

Mari Carmen Garate

ATZERAPENA

Azken orduko arazoak tarteko pasa den astean Elgoibarko Etxerat taldeak Josu Larizen estradizioaren aurka antolatutako ekintzak bertan behera geratu ziren. Kontzertuaren antolakuntzarekin sortutako arazoan erruz, Josu Larizen aldeko akanpada eta hurrengo egunean egin beharreko giza katea atzeratzea erabaki genuen. Ekintza hauen data berria laster emango dugu jakitera. Barkatu eragozpenak.

Elgoibarko Etxerat

PARROKIAKO MISIO TALDEAREN OHARRA

Parrokiako Misio Taldeak elgoibartarrak eskertu nahi ditu, joan zen abenduan, bidezko merkataritza bultzatzeko Errosario kalean jarri genuen denda izandako partaidetzagatik. Berriz ere, Odria familiari eskerrak ematen dizkiogu, beraien lokalean denda jartzen uzteagatik.

Zortzigarren urtea izan da aurtengoa. Denda honen bitartez, herrialde aberatsetako kontsumitzaileak, herrialde txiroetako produktoreengana hurbildu nahi izan ditugu, kontsumo arduratsu, kontziente eta kritiko bat lortzeko asmoz.

Parrokiako Misio Taldea

Urruzunoren begi ezkutua

Ciber amodioak



Ciber batean sartu naiz unibertsitateko notak ikusteko asmoz, ondoan 65 urteko aitona txoa daukat traje dotore batekin pantailari adi-adi begira. Kuriositatez bere pantailari begiratu diot.

Messenger berrian ari da 25 urteko neska

eder baten argazkiari so.

- kaixo laztana, barkatu, gaur berandu atera naiz entrenamendutik- idatzi dio aitona.

- Lasai, ni ere oraintxe bertan konektatu naiz. Zer moduz unibertsitatean?

50 zentimoko txanpona sartu du berrira, 30 minutu gehiago ditu...

- Nekatuta, oraintxe bertan iritsi naiz etxera, zerbeza bat edaten ari naiz.

Zerbeza bat? sakarinadun kafetxo bat izango da aitona txo!

- Maitea, noiz ezagutuko gara? galdetu dio neskak.

Aitona txoak besoa jaso du disimuluz bere pantaila ikusi ez nezan. Beranduegi! 30 urteko gazte gupo baten argazkia bidaltzen ari zaio messengerreko neskari... Ikusi beharrekoak!

Maite Uriarte

ASTEKARIA

BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



DANOBAT
MAGUINAS HERRIEMENTA



GOITI
GRUPO DANOBAT



ESTARTA
GRUPO DANOBAT

BAIRENEK ez du bere gizon horren IRITZIA eta ESKUTITZAK atzetan adierazibidean erantzulizunik. Eskutitzak ordo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez albatu datu hauek iruzten. **iruztenak, NAB** eta **lefono zila**



◆ Gizonezko batek esan digunez, **Elgoibarren aparkalekuak kendu eta ez dute aparkatzeko leku berririk jartzen**: “Munduan ez dago Elgoibar baino toki okerragorik aparkatzeko. Aparkalekuak kendu eta, ez dute berririk egiten. Udalari lotsa eman beharko lioke egoera honek. Espaloi handiak egiten dituzte, eta lorontziak jartzen dituzte traban, bai oinezkoentzat eta baita autoentzat ere. Horretarako hobe espaloi normalak jarri, eta aparkatzeko lekua uztea. Nafarroa Enparantzan 30 minutuz bakarrik aparkatu daiteke, baina hori ez da betetzen, eta ez dute multarik jartzen, baina gero, erreka bat egiteko Txankakaua zubian autoa lagatzeagatik multa jartzen dute. Elgoibarko egoera kaotikoa da. Egoera honen aurrean Udalak eta udaltzainek beste jarrera eta borondate bat erakutsi beharko lukete!”.



◆ Gazte talde batek esan digunez, **IMHko tenis pista oso egoera txarrean dago**: “IMHko tenis pista oso egoera eskasean dago. Sarea puskatuta, aulkiak ere bai, piboteak okertuta... ez dute batere zaintzen. Herrian tenisean jokatzeko toki bakarra dela kontuan izanik, hobeto zaindu behar da”.



◆ Herritar batek kontatu digunez, **San Frantzisko kaleko etxeetatik, zaborra errekarra botatzen dute**: “Aspaldiko kontuak dira, baina oraindik ere, San Frantzisko kaleko bizilagun batzuk zaborra leihotik errekarra botatzen dute. Lehen uretara jausten zen zabor guztia, eta orain, Arrantzaleen Pasealekura botatzen dute. Oraindik ez dute pasealekua ireki, baina jendea bertan paseatzen hasten denean berdin jarratzen badute, zikinkeria artean ibili beharko dugu. Lotsagarria benetan!”.

Barrak, Birrak eta Barreak



©KOKOE 2004



Inauteriak aspaldiko kontua dira Euskal Herrian. Errealitatetik aldenduz, beste pertsonaia batzuen azalean sartzeko aukera paregabea eskaintzen dute inauteriek. Izan nahi duguna izatea lortzen da askotan moztarroari esker, edo aurpegia estalita, nahi dena egiteko lizentzia eskuratzen dela uste dute askok. Garai batean astearte izaten zen inauterietako egun garrantzitsua, gaur egun, ordea, jende asko larunbatean moztrotzen da. Hala ere, Elgoibarren badauzkagu aspaldiko tradizioari jarraitzen dioten hainbat koadrila. Gaurkoan, astearte arratsaldean moztrotzen diren bi koadrila desberdinekin hitz egin dugu, eta zertaz moztrotuko diren kontatu ez badigute ere, dena prest daukatela azaldu digute.



Inaut

Maria Luisa, Karmen, Maria Angeles, Charo, Rosa, Maite, Olatz, Dori, Marisabel eta Begoña elgoibartarren izenak aipatuta ez zaizue inor burura etorriko, agian, baina inauterietan kalean “ikuskizuna” ematen duten horiek direla esanez gero, ezagunagoak egingo zaizkizue, ezta? Gogoan al duzue motxailez jantzi ziren hura? Bai, ahuntzarena egiten zuen txakurrarekin atera zirenekoa... eta iazkoa? Gizon indartsuak ditugu Euskal Herrian, baina emakume hauek harri jasotzen eta idi-probetan erakutsi zuten trebezia eta graziak zur eta lur laga gintuen eta hala geratuko lirateke Perurena edo Saralegi bera ere indar erakustaldi hura ikusita. Eta aurten zer? Ez da erreza izango aurreko urteetako ikuskizunak gainditzea, baina saiatu, saiaturiko dira. Dagoeneko prest dute dena, baina ez digute ezer aurreratu nahi izan. Martitzenera arte (otsailak 24) itxaron beharko dugu. Arratsaldeko 17:30etik aurrera kalera atera eta ez da zaila izango nondik dabilizan igartzea.

Duela hiru urteko inauterietan jantzi ziren lehen aldiz denak berdin, “Jantziei baino “show”ari garrantzi gehixo ematia pentsau gendun eta danok motxailez jantzi ginan. Girua sortu eta parre eixia da gure asmua, jendiak gurekin ondo pasa daixela. Pentsa, 11.000 pezeta batu genduzen iaz eta 7.000 pezeta motxailez jantzi ginanian. Zenbat parre ein gendun esaten digu jende nagusixak eta aurtengorako zerbait prestatu al dogun galdetzen digute. Aurreko urtekua ezingo dogula gainditxu pentsatzen dogu beti”.

BITXIKERIAK

Hainbat anekdota dituzte kontatzeko: “eibartar batek gure kaleko “show”a ikustian nonbaitxetik antzerki talde bat ekarri zabela pentsau zaban”. Kaleko ikuskizunok eskaintzearen Udalean ere eskatu omen dute finantziazioa, baina idatziz eskatu behar omen da aurrez eta lan handia denez ez dute aurrera jarraitu. “Diru piska bat gehixokin izugarritzko “show”ak antolauko genitxuzke, ideiarik ez zaigu falta-eta”.

LOTSARIK GABE

Koadrila barruan batzuk beste batzuk baino gutxiago ematen dute aurpegia, “ni ez naiz horrela aterako esaten dogu beti aurrez, baina momentua ailegatzean paperian sartzen gera. Koadrilan jutiak asko laguntzen du. Batzuk esaten dabe hemen datoz zoro hauek, baina inauteriak eguneroko gauzetaz ahazteko eta dibertitzeko dira, ezta?”





Velazquezezn koadrorik famatuena egin zuten 1993an: “Jendeari gehien gustatu zaion mozorroa izan da, baina lan handia hartu genuen jantziak eta markoa egiten”.

er ak



Pitxintxu dendakoak aspaldi hasi ziren astearte arratsaldean mozorrotzen: “1980. urte inguruan aterako ginen lehenengo aldiz, eta ahal dugun bitartean ohitura honi utsiko diogu”. Izaskun eta Mari Jose Estibaritzek Tolosako senideak dituzte, eta txikitatik bizi izan dute inauteri giroa: “Barruan daramagu inauteri giroa, betidanik ezagutu dugu mozorrotzeko ohitura, eta izugarri gustatzen zaigu”.

Aurtengo mozorroa ere pentsatuta daukate dagoeneko, baina ez digute kontatu: “Gurekin kalera ateratzen diren askok, hiru edo lau egun lehenago jakiten dute zertaz mozorrotuko garen, misterioa mantentzea gustatzen zaigu”. Esan digutenez, ondo mozorrotzea gustatzen zaie, baina azken momentuan egiten dute dena: “Dendan dauzkagun jantziak, edo etxean bilatutakoak erabiltzen ditugu. Inauterietako izpiritua hori da, dirurik gastatu gabe ondo mozorrotzea”.

Arratsaldeko 16:00ak aldera aterako dira, eta herritar ugari beraiek ikusteko zain egongo da.



Reala eta Athleticken arteko norgehiagoka paregabea antolatu zuten herriko kaleetan. “Koadrilakoak etxera joan eta futbol zaletuz jantziak agertu zitzaizkigun. Baloiarekin jolasean oso ondo pasatu genuen”.

Kilimanjarotik ekarritako jantziak, musika ipini, eta danborrak jotzen ikusi genituen ia: “Konplikaziorik gabeko mozorroa izan zen, eta giro bikaina izan genuen”.



Negutegi bitxia, benetan!

1995ean Greenpeaceeko partaide bihurtu ziren: “Bolantarik ez lemapean, bale eta guzti atera ginen kalera. Baleek ura botatzen zuten. Lan handia hartu genuen, baina merezi izan zuten”.



Almodovar eta bere neskak autobus eta guzti atera ziren kalera: “Elurra egin zuten, eta oso jende gutxik ikusi gintuen”.



“Telepiztako banatzaileari pizza bat eskatu ostean, argazkia atera genuen”.



Marokotik ekarritako jantziekin atera ziren 1998an: “Artikulo zahar pilo bat 100 pezetatan saltzen genituen. Afaria ordaintzeko dirua lortu genuen”.



Peskatxintxuren usaina kalez-kale zabaldu zuten: “Eroskin eskatu genuen soberan zeukatzen arraina”.



Bai, esan? Enkargua hartu eta garbiketa lanetan ikusi genituen 2000. urtean.

Eusko Jaurlaritzak "boteiloari" amaiera emateko plana aurkeztu du

Lehenengo pausoa larunbat arratsaldeetan Elgoibarren gertatzen denaren azterketa sakona egitea izango da

Azken urteotan "boteiloaren" arazoa izugarri nabarmendu da Elgoibarren. Gainera, alkohola eta beste hainbat drogen kontsumoari, beste gertakari garrantzitsu batzuk gehitu zaizkio azken hilabeteotan, tren geltokiko istripua, esate baterako. Elgoibarko bizilagunak deseroso daude egoera honen aurrean, eta Eusko Jaurlaritzatik berehalako irtenbide bat bilatzeko beharra ikusi dute.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuko Departamentuak proiektu bat jarri du martxan honelako egoera bizi duten herriein elkarlanean, guztion artean arazoa konpondu ahal izateko. Hasteko, Euskal Herriko Unibertsitateko soziologo talde batek larunbat arratsaldeetan Elgoibarren, eta Debarrenan gertatzen denaren azterketa sakona egingo du. Emaitzak Euskal Drogomenpekotasunaren Behatokiak eta Deustuko Unibertsitateak eginiko beste



Asko dira larunbatetan Elgoibarrera etortzen diren gazteak.

ikerketa batzuetako datuekin bateratuko dira, eta diagnosis egin ostean, mahai inguruak egingo dira Elgoibarko gazte, ostalari, udaltzain eta merkatariekin.

PPko zinegotziari erantzuna

Elgoibarko alkateak, Marivi Agirregomezkortak eta EAJren udal taldeak euren ezinegona azaldu dute,

PPko bozeramaileak Deba-Urolako Alderdi Popularraren Eskualdeko Batzordean egindako hainbat adierazpen direla-eta: "Iñigo Arkauzek, ez du gertutik ezagutzen gure herrian larunbat arratsaldeetan zer gertatzen den. Ez dut uste, 1999an zinegotzi aukeratu zutenetik larunbat bakar bat ere igaro duenik bera ordezkari publiko hautatu zutenen herrian. Ez da zilegi zinegotzi hautatu duten herrian bizi ez eta hain kritika errazak, eta aldi berean okerrak, egitea; izan ere, bertan bizi gabe, ezinezkoa da herria gertutik

ezagutzea. Nahiago genuke, bai Iñigo Arkauz, eta bere alderdikideak gure herriaz gehiago arduratuko balira, eta noizbait, Elgoibarren onerako izango diren proposamen positiboak eta hausnartuak egingo balituzte, eta horrela, euren jardun politikoa batzorde informatzaileetan eta jendaurreko ekitaldietan egotera bakarrik mugatuko ez

Bidelan enpresak Eibar-Gasteiz autopistan Bergara Iparra ordainlekuaren konfigurazioa aldatu du



Isaac Loiola elgoibartarra da Bidelan enpresako arduraduna.

Bergara Iparra ordainlekuaren konfigurazio berriak, autobide honetako zirkulazioa arintzea du helburutzat, izan ere, autobidearen eguneroko auto kopuruaren batezbestekoa 6.000 ibilgailutik gorakoa baita. Aldaketa honek helburu nagusi bat dauka, ibilgailuen zirkulazioari arintasuna ematea. Horrela, ordainlekuak lau irteera izango ditu eta horietatik hiru, TAG sistema bidez kontrolatuko dira.

165.000 ibilgailu baino gehiago

Bide hau 2003ko abenduaren 20an inauguratu zen eta 7,2 kilometroko luzera

du. Autobideak, guztira, 46,2 kilometro izango ditu.

Eibar-Bergara Iparra tartean eraikitako zatiak 5.347 ibilgailutako batezbestekoa izan zuen lehenengo hilabetean, eta hauetatik %9,2a ibilgailu pisutsuak izan ziren. Gabonetako zirkulazioaren batezbestekoa, 2003ko abenduaren 24tik hasi eta 2004ko urtarrilaren 6ra arte, 4.516 ibilgailukoa izan zen. Gaintzeko egunetako batezbestekoa 6.032 autokoa izan da. Guztira, lehenengo hilabetean, 165.767 ibilgailu igaro ziren, Eibar-Bergara tartean, eta zirkulazio gehien jasan zuen eguna abenduaren 23a izan zen, 9.111 ibilgailurekin.

Unceta enpresak 130 urte bete ditu

Unceta enpresa Eibarko ile apaindegi batean sortu zen. Juan Pedro Unceta bezeroen eskariei erantzunez, ferreteria piezak ekartzen hasi zen ile apaindegira. Berehala ohartu zen pieza haiek diru gehiago uzten zutela, eta negozioz aldatzea erabaki zuen. Honela, 1874an ireki zuen Juan Pedro Uncetak lehenengo ferreteria. Lau belaunaldi ezagutu ditu Uncetak ordutik, eta gaur egun Ricardo Garate eta Pedro Unceta dira enpresako presidentek.

1989an ekarri zuten enpresa Elgoibarrera, Eibarko erdigunean zeukaten lekua txiki geratu zitzaielako. Gaur egun 255



langile ditu Uncetak eta 9000 metro karratuko biltegiak. Espainia, Kuba eta Portugalen ditu delegazioak, eta bere sektorean lehenengoa da Espainia mailan.

Espainiar Estatuaren kontrako 250 salaketa inguru jaso ditu Espainiar Estatuak Erasotuen Herri Ekimenak

Joan zen urtarrilaren 31n aurkeztu zen Elgoibarren Espainiar Estatuak Erasotuen Herri Ekimena. Ezker Abertzaleak bultzatutako kanpaina honen helburua euskal hiritarrei eginiko erasoak salatzea da, eta dagoeneko, 250 salaketa bildu dituzte. Joan zen ostiralean, otsailaren 13an Nafarroa plazan jarri zuten salaketak biltzeko mahaia, eta larunbat goizean Plaza Handian. Esan digutenez, jendearen erantzuna oso ona izan da, eta aurrerantzean, kanpaina hau lantegi, ikastetxe eta tabernetara zabaltzeko asmoa daukate.

Martxoaren 14ko Hauteskundeak pasatu arte Espainiar Estatuaren kontrako salaketak



jasotzen jarraituko dute, azkenik, Nazio Batuen Erakundera eramateko. *Euskal Herria aitortu eta errespetatu* lemapean, Espainiar Estatuak salatuko dute.

Incess eta OPE-Consultores enpresak partehartzeari buruzko ikerketa proiektua gidatuko dute IMHn



Joan zen otsailaren 13an proiektu kideen lehen bilera egin zuten IMHn. Langileen parte hartzeari buruzko ikerketa eta bere garapenerako enpresa estrategietan oinarritzen da proiektua. Parte-hartzearen arazoari argibideak emango dizkion ekarpenak egin eta egun partehartzean gehien laguntzen duten estrategiak azaltzeko helburua dauka proiektu honek. Ikerketa honetan, Guk Consultores, Ulma Packaging, eta EHU/UPVko Lan Harremanetako Unibertsitate Eskola, Zientzia Enpresa eta Ekonomia Fakultateak eta Gizarte Zientzi eta Komunikazioko Fakultateak hartuko dute parte.

Emakumeak ikasketa tekniko eta teknologikoak aukeratzera animatzeko kanpaina

Pasa den urtean jasotako emaitza positiboak direla-eta, Debegeesak Emakumeak ikasketa tekniko eta teknologikoak aukeratzera animatzeko kanpaina jarri du martxan.

Ekintza ezberdinak antolatuko dira. Alde batetik, orientazio biltzurak eskainiko dira eskualdeko DBHko zentroetan, bestetik, enpresa eta heziketa zentroetan "ate irekien" jardunaldiak prestatuko dira, eta, azkenik, idazlan lehiaketa bat egingo da. Proiektu honen helburua bikoitza da: emakumeak eskaera handiagoa duten lanbideetara zuzentzea eta emakumezkoen artean dagoen desenplegu maila altua murriztea. Bestalde, programa honek, industriak langile aldetik duen urritasuna txikitzeko asmoa du.

Deba Beheko eskualdea tradizio industrial handikoa da eta, gaur egun, gune honetako langileen %53,4ak industriari lan egiten du (automozio eta makina erreminta sektoreetan batez ere). Eskualdeko emakumezkoen desenplegu portzentaiak esanguratsuak dira. INEMek eskainitako azken datuen arabera, Debarrenak 2.067 langabetu ditu, eta hauetatik, 1.395 (%65,75a) emakumezkoak dira. Interesatuak 943 201533 edo 646 201504 telefonoan lortu dezakete informazio gehiago.

Haur Saharaiarrak ekartzeko kanpaina

Uda honetan Saharar Herriko haurrak gurean hartzeko kanpaina bultzatuko du berriz Udalak. Kanpaina hau Euskadiko Frente Polisarioaren ordezkariak antolatzen du. Programa honetan parte hartu nahi dutenek Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailarekin harremanetan jarri, datorren martxoaren 30a baino lehen.

Haurren adopzioa onartu diote emakume bikote bati Iruñean

ZER BEGITANTZEN ZAIZU BIKOTE HOMOSEXUALEK HAURRAK ADOPTATZEKO AUKERA IZATEA?



IONE ARIZNABARRETA
36 urte, etxekoandrea

Oso ondo ikusten dot. Gaur egunian aitxa eta ama dauzkaten ume asko ere, bixetako batekin bakarrik egoten dia. Ez dute inolako faltarik izango, berdin hezi daitezke.

ADINA SANTOS

23 urte, ile apaintzailea

Ados nago. Haurrak gurasorik gabe, edo gosez hiltzen egotea baino, hobe da bikote homosexualak adoptatzea. Askotan heterosexualekin baino hobeto egon daitezke.




CRISTINA CID
32 urte, etxekoandrea

Hobeto daude umeak bikote homosexual batekin, abandonatuta baino. Haur asko daude adoptatzeko zain, eta bikote homosexualak heterosexualak bezain arduratsuak izan daitezke.

RITA EGAÑA

39 urte, abokatua

Ondo iruditzen zait. Gauzak aldatzen ari dira, eta familiaren eredu ez da lehengo berdina. Gizartearen eboluzioaren emaitza da, eta oso ondo ikusten dut.



ANJEL CHICO
51 urte, espezialista

Haurri heziketa on bat ematen bazaio ondo iruditzen zait. Heziketa da inportanteena, eta bikote homosexualak ere haurrak heitzeko gai direla uste dut.

ANTXON DEL SOL

43 urte, auto saltzailea

Umeari bizimodu ona eskaintzen dioten bitartean, ondo dago. Zenbait kasutan bikote heterosexualek baino hobeto zaindu dezakete umea.



INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKE-

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
GRUPO BREALMM
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

Elgoibarko hiru ikasle saritu dituzte ingurumenari buruzko idazlan lehiaketan

Ane Belza, Unai Cabo eta Ane Astigarraga elgoibartarrak, eta Maialen Badiola eibartarra izan dira Debegeesak (Debabarrenako Eskualdeko Garapen Ekonomikorako Elkarteak) Agenda 21 programaren barnean antolatu duen ingurumenari buruzko idazlan lehiaketan. Guztira, eskualdeko DBH mailako hirurehun ikaslek hartu dute parte lehiaketan

Debabarrenan ingurugiraren garrantzia eta honek eskualdeko arlo turistikoekin duen erlazioa nabarmentzea izan da Debegeesak, Agenda 21 planarekin bat eginez, bigarren aldiz antolatu duen lehiaketa honen helburua. Ane Belzak Elgoibarko parke bati buruzko narrazioa aurkeztu zuen lehiaketan, Unai Cabok Kalamua mendian gertatutako istorio bat kontatu zuen bere lanean, Ane Astigarragak Deba ibaia aukeratu zuen bere idazlaneko protagonista bezala, eta Maialen Badiola eibartarrak, San



Pedro auzoan bizi izandako gertakizun bat kontatu zuen.

Sari banaketa hilaren 13an egin zen Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Ekitaldian, Miguel Anjel Mujika Elgoibarko alkateordea eta Jasone Osoro idazlea izan ziren. Miguel Anjel Mujikak ingurugiroa zaintzeko garrantzia azaldu zuen, eta Jasone Osorok, sarituei bizitzak ematen dizkien aukerak aprobetxatzeko gomendioa eman zien.

Atxutxi karaokea izango da bihar Plaza Handian



Urtero bezala, Atxutxiamaika eta GAZ-T Aisialdi Taldeek karaokea antolatu dute inauteriak ospatzeko. Bihar larunbata, hilak 21, arratsaldeko 17:00etan hasita, Euskal Karaokea izango da, beraz, Plaza Handian. Elgoibarko haur eta gaztetxoek karaokean parte hartzeko aukera izango dute, eta ondoren, parte hartzen duten guztien artean opariak zozketatuko dira. Aurten, berrikuntza gisa, karaokea ordenagailua bidez izango da.

Ate irekien eguna ospatu zuten otsailaren 14an Pilar ikastetxean

Goizeko 10:00etan hasita, ate irekien eguna ospatu zuten joan zen larunbatean, hilaren 14an, Pilar Ikastetxean. Ekitaldi desberdinak izan ziren, ikasle eta gurasoentzat. Atxutxiamaika Aisialdi Taldekoek tailer eta jolas desberdinak antolatu zituzten. Adin desberdinetako ikasleekin olinpiadak egin zituzten; taldeetan banatuta, nor baino nor, aritu ziren ikasleak. Eguraldi ona egin zuenez, ikastetxeko patioan jende asko bildu zela kontatu digute.

Gurasoentzako, bestalde, goizeko 10:30ean Hilario Garrudo psikologoak familiari buruzko hitzaldia eskaini zuen. 11:30etik 11:45era ikastetxea bisitatzeko aukera izan zuten bertara



gerturatu ziren gurasoek, eta ondoren luntxa eskaini zitzaion. Azkenik, 12:15etik 13:00ak arte, familiari buruzko mahai ingurua izan zen.

ESKOLA KIROLA

AGENDA

Otsailak 21

ATLETISMO JARDUNALDIA, Mintxetan

■ Benjaminak ■

10:00 50m

10:45 300m

11:30 LUZERA

12:15 4 x 50m

■ Alebinak ■

10:00 PISUA

10:45 LUZERA

11:30 600m

12:15 4 x 60m

■ Alebin neskak ■

10:00 LUZERA

10:45 PISUA

11:30 1000m

12:15 4 x 80m

DJ ikastaroa

GAZ-T Aisialdi Taldeak antolatuta, DJ ikastaroa izango da DBH 1,2,3 eta 4. mailakoentzat. 3 larunbatetan eskainiko da Kultur Etxean, martxoaren 6an, 13an eta 27an, goizeko 10:30etik 13:30era arte. Ikastaroa EH Sukarra taldeko abeslari eta gitarra jolea den Mikel Gorosabelek eskainiko du.

Izen emateko epea otsailaren 23tik martxoaren 3ra izango da. Ikastaroak 20 euroko prezioa dauka. Dirua Kutxako 2101 0036 65 0124148420 kontu korrante honetan sartu behar da, eta ordainagiria Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen entregatu behar da. Ikastaroan parte hartzeko plazak mugatuak dira, beraz, ahalik eta azkarren matrikulatzea komeni da. Informazio gehiago 943 74 16 26 telefonoan (Nerea Oñederra) eskuratu ahal izango da.

MERCHE Txurreria



ANTONIO HERNANDEZ

"Irin eta
esku onak
behar dira
txurroak ondo
egiteko"

Zein da txurro onak egiteko sekretua?

Ura toki guztietan desberdina denez, irin eta esku ona izatea da garrantzitsuenak.

De txurro gainditutako azterketarik gogoan al duzu?

Urruti gelditu dira nire ikasle garaiak, baina garai hartan azterketak *de txurro* gainditzen ziren.

Txurroak bakarrik ala txokolate taza batekin?

Txokolate taza batekin hobe.

Txurro bat eginda dagoela esaten dioenak, zer esan nahi du?

Gaizki dagoela, ez dela ondo sentitzen.

Txurro bat inporta zait esaldia entzutean zer datorkizu burura?

Mota horretako esaldi asko entzuten ditut, baina ez diet aparteko garrantzirik ematen.

Real Madridentz Liga de txurro irabazi al zuen iaz?

Ez naiz futbolzalea, baina baietz uste dut.

Herri txurrozalea al da Elgoibar?

Bai, txurro asko jaten dute elgoibartarrek. Hilabete eta erdi egon gara hemen, eta normalean askoz denbora gutxiago pasatzen dugu toki bakoitzean.

Zenbat urte daramatzazu Elgoibarrera etortzen?

15 inguru. Bi urtetan ez nintzen etorri, eskaintzen zidaten lekua ez zelako oso ona. Trinidad jaietan, San Bartolomeetan eta otsaila inguruan etortzen naiz normalean.

Ez al duzu sekula pentsatu leku fijo batean gelditzea betirako?

Bai, baina oso zaila da. Gasteizen lokal bat hartzea pentsatu genuen, baina bizilagunekin arazo asko izan genituen, eta txurreria bat herri erdian egon behar da, bestela ez da inor hurbiltzen.

Udan jaten al dira txurroak, ala neguko elikagaia da?

Berdin-berdin, edo gehiago esango nuke. Jairik jai ibiltzen gara, eta jaietan txurroak jatea tradizioa da. Duela pare bat urte, Azpeitiko jaietan 45^o egiten zituen, eta arratsaldeko 17:00etan jendea txurro eske etortzen zitzaigun.

Eguneko zein ordu da txurro bat jateko aproposena?

Arratsaldeko 19:00etan, edo goizaldeko 3:00etan tripa hutsik dagoela sentitzen denean.

Zenbat denbora behar da txurroak egiteko?

20 minutu inguru.

Zenbat toki desberdin pasatzen dituzu urtean zehar?

12 herri inguru. Familiarekin bidaiatzen dut, lagun asko ditugu, eta oso ondo pasatzen dugu.


Senide txurrerorik izan al duzu?

Negozio hau nire aitaginarrebarena zen. Berak utzi egin behar izan zuen, eta nik hartu nuen. Gauza asko aldatu dira, baina familiako negozioa izan da.

I. URTEURRENA

2003ko otsailaren 22an, 49 urte zituela hil zen

JOSE MARI OÑEDERRA ARGINBERRIren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da San Bartolome Parrokian
igandean, hilak 22, eguerdiko 12:30ean.
Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



BARRen

ASTEKARIA

elkarrizketa

OROIMEN IZUGARRIA DU ITZIAR AJURIAK; IKASLE IZANDAKOEN IZENAK, URTEAK... ASKOK NAHIKO GENUKE HORRELA EGON 80 URTEREKIN. HORRENBESTE BIDAIA EGIN ETA GERO ONDORIO BATETARA IRITSI DA: BIZITZEKO EZ DAGO EUSKAL HERRIA BEZALAKORIK.



Itziar Aiuria

"DANBOLINA HASTEN ZANIAN ARRATSALDEKO 5ETAN, DANA LAGA ETA DANTZARA!"

INTERNETEN IBILTZEA ETA BIDAIATZEA DIRA BERE ZALETASUNAK, BADIRUDI 20 URTEKO GAZTE BATEZ ARI GARELA, BAINA 80 URTE BETEKO DITU DATORREN HILEAN ITZIAR AJURIAK. "INTERNET IKARAGARRIXA DA, HAINBESTE GAUZA DAUDE!" DIO HARRITUTA. ELGOIBARKO IKASTOLAK ASKO ZOR DIO KARTA JOKUAN ZALETUA DEN ITZIARRI, AHALEGIN HANDIAK EGIN BAITZITUEN HAURREK EUSKARAZ IKAS ZEZATEN ETA KLANDESTINITATEA LEHENEGO PERTSONAN BIZI IZAN ZUEN URTE GOGOR HAIETAN. IKASTOLAREN SORTZAILEETAKO BAT IZATEAZ APARTE, MALETA HAUTSIK GABE IZATEN DU ITZIARREK BETI, 50 URTE BETE ZITUENETIK EZ DA



Itziar Ajuria

“Maitasun asko iku

► Ikastolaren sorrerako urteak gogorrak izan ziren,ezta?

Garai txarrak zian orduan, klandestinitate handikuak. Inspektoria etorri eta gogorra izaten zan titulurik ez geneukalako, behin esan zian: ¡como le coja otra vez con niños de 6 años aténgase a las consecuencias! Haurtzaindegi moduko bat zala uste zuten haiek.

Gogorra izan zan, baimenik ez, laguntasunik ez. Gerora ordia udaletxia hasi zan laguntza piskat ematen eta 1975az geroztik gauzak hobetu zian, gizarte segurantzian sartu gintuztelako.

► Nola sortu zen ikastola?

Gurasuen ideia izan zan, batez ere, ikastola sortzeko ideia. Ni orduan josten ibiltzen nintzan sastrerixan, etxian esan naban ikastola zabaltzeko asmua zauala eta irakasle sartzia proposatu ziatela. Gure aita hain euskaltzalia zanez ondo iruditu zitzaion.

► Ezkutuan ematen al ziren klaseak?

Ezkutuan ezkutuan ez, baina ahal zan lekuan. Lorito parian hasi ginan, gero Banco Bizkaia atzealdian, parroixian, Andikano aldeko azkeneko etxietan...1962-63 kurtsua izan zan lehena eta 29 ume hasi zian.

► Eta dirua nondik ateratzen zenuten? Arazoa handia al zen?

Ui!! Dirua! Esaten dute “El dinero no es problema, no tenerlo es el problema”, eta hori zan guri gertatzen zitzaiguna. Bonuak atera zitxutzen hamar durokuak, hogeiturokuak eta gero guraso guztixak sozio in bihar zian. Baina hala ere, beti diruripe! Hau itxia nahi, bestia itxia nahi... baina beti diruripe!

► Titulurik gabe zeundeten orduan?

Bai. Graduado eskolarra beranduago atera genuen... Irakasten ikasten omen da eta hamaika ikastaro egindakoa naiz ni, Avilán, Salamankan, Madrilén..Guretzako ez zauan dirurik, baina juntakuek beti ateratzen zuten dirua kursiloetarako!

Juntakuek lan handixa ein zaben ikastola aurrera eramaten, gogorra izan zan baina pena merezi izan zaban.

Nik batez ere haurren gurasuak miresten ditzut, gu hor ez titulu eta ez ezer, eta gurekin konfiantza handixa zeukaten, oso ausartak izan zian. Sekula ez naiz damutu urte gogor haietaz, alderantziz, oso harro sentitzen naiz.

► Nolakoa izan zen ikastolaren 25.urteurreneko ospakizuna?

Demasa izan zan! Nik ez nekixan ezer ere, jaialdi bat zeola bakarrik. Nik orduan soineko zuri bat neukan eta harekin jun nintzan. Orduan irakasle danak etorri zian zuriz jantzita, “ados jarri gerala ematen du” esan nuen, baina nik ez nekixan irakasliek korua formatu bihar zabenik. Gero antzerki bat egon zan eta omenldixa in ziaten, jubilatatu nintzianian izan zan hori, oso politxa. Maitasun asko ikusi det beti ikastolan inguruan.

“Hasi det beti ikastolan inguruan”



“GOIZIAN MEZA, PASIARA, INTERNETEN ORDUBETE... POZIK BIZI NAIZ”

► **Mundu osoa ezagutzen duzula entzundut, asko bidaiatu duzula...**

50 urtekin hasi nintzan bidaiatzen. 3 anaia nitxun eta ni nintzan alaba bakarra. Ama zanak beti esaten zian hiltzen zanian joateko nahi naban lekura, baina bera bizi artian etxian geldi egoteko. Behin baino gehiagotan esan dienian “que viajera”, beti esan diet “aman esana betetzen ari naiz”. Gure amakin ez zeon ertetzerik, Bilbo eta Donostiara joan izan naiz, baina urrutio ez. Ama hil zenian, Erromara jun nintzan eta ordudunik leku asko ezagutu ditxut. Gainera, ikastolan “Club Jubeni” eramaten naban eta urtero 4 eguneko bidaia itxen gendun, Greziara, Menorkara..

► **Zein lurralde dituzu gogoko?**

Gu baino hobeto bizi diren lekuetara joatia gustatzen zait, toki aurreratueta-
ra, Kanada, Suedia, Noruega. European asko dago ikusteko. Errusian ere gustora ibili nintzan, nahiz eta hura pobriagoa izan, baina Mosku eta San Petersburgo aldeko palaziak izugarriak dia. Hasieran gure inguruko lurraldiak ikustera jun ginan: Italia, Belgika, Frantzia, Holanda, baina poliki-poliki urrutiora juten hasi ginan.

► **Hizkuntzekin zer moduz atzerrian?**

Illobakin jun naiz beti eta bera moldatzen da gutxi gorabehera ingelesakin,

keinu bidez komunikatzen gera. Gainera, dirua eramanez gero, inda dau dana!

► **Zure bizitzako etaparik politxena bizitzen ari al zera jubilatu ondoren?**

Urtiak dakouzela baino ondo bizi gera! Beti hartu det leku guztixetan parte, antzerki taldean, koruan, baita errifak saldu bihar zianian. Goizian mezia badau mezetara, pasiara, Interneten ordu-bete... pozik bizi naiz.

► **Zein lurralde geratu zaizu ezagutzeko?**

Australiara joango nintzateke gustora, baina nire adinerako ez da aproposa, luzeegixa da. Bertara juteko aukera eduki genunian ez zan inor juten Australiara, orain ordia jende asko juten da.

► **Zer erakutsi dizute bidaiek?**

Asko ikasten da kultura desberdinak ezautzen. Asko harritsu nintzan Suedian, jubilatu eta gero gizon-emaiztiak zentro batera erretiratzen zirala ikusi nabanian. Gogorra izan zan neretzat, hemen orduan ohitxuta geundelako amama eta aitxitxa danak etxian ikusten, familixan bizi izaten. Ointxe hori etorri da, baina momentu hartan goguan hartu naban, han gu baino aurreratuago zijuazen eta gaztiek ez zakaten denboria nagusixekin pasatzeko.

Bestalde, Praga aldiand egon ginanian pobretasun handixa ikusi gendun, oso politxa zan, baina orduan Errusian menpe zauanez gosia zauala ikusten zan. Harresian beste aldera pasau ginanian auto guztixak berdin-berdinak zian, txiki-txikixak. Kafetegi batera jun ginan eta gaiztua izan nintzan, Coca Cola bat eskatu nuan! Ez dakizu nolako begirasuna bota zian tabernarixak. Hura oso tristia zan, Kuban bezela. Han tabakua, azukria eta bertako gauzak razionauta zeuden, blokeua zala-eta. Errusia aldera bidaltzen zitxutzen bertako produktuak dirua ateratzeko. Horregaitik, bizitzeko ez da Euskal Herrixa bezelakorik.



“ASKO HARRITXU NINTZAN SUEDIAN; JUBILATU ETA GERO GIZON- EMAIZTIAK ZENTRO BATERA ERRETIRATZEN ZIRAN”

► **Atzerrian ba al dute euskaldunen berri?**

Toki batzutan bai, baina gutxi. Jende arruntak ez du hau ezagutzen, askok Bilbao esatean kokatzen dute Euskal Herrixa, baina orokorrian ezjakintasun handixa dau.

► **Oso pozik bizi zarela ematen du**

Bai! Ikastolak poz handixa eman dit. Gazte denboran oso ondo pasatzen gendun, alegre xamarrek ginan kuadrilakuak eta oin pasatzen duten baino hobeto pasatzen gendun, jun elizpera eta antzerkixak in, guk txalotu eta dana. Danbolina hasten zanian arratsaldeko 5etan, dana laga eta dantzara!




El caserio antzerlanean parte hartu zuenekoa.



Ikastolaren inaugurazioa, 1997ko ekainean.

Itziarren bidaiak

Mosku



Punta Plata (Dominikar Errepublika), 1997ko apirila



Lago de fogo (Azores), 2002an.



Lake Louis (Kanada), 1997an.



Gibraltar, 1998ean.



Orreaga, 2001eko apirilean.



Farmazia - okindegia

EGUNEZ

20 Fernandez
 21 Yudego
22 Yudego
 23 Zabaleta
 24 Etxeberria
 (Errosario kalean)
 25 Fernandez
 26 Bidasolo
 27 Etxeberria
 (Santa Ana kalean)

GAUEZ

Fernandez
 Yudego
 Yudego
 Zabaleta
 Etxeberria
 Fernandez
 Bidasolo
 Etxeberria

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42
ZABAETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84
OKINDEGIA
22 igandea Doña Mercedes

EuskoTren

DONOSTIA-BILBO

Egunero
 Donostia AMARA 5.45 06.45... 20.45
 Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
 * jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero
 Mendaro 07.50 08.50... 21.50

EuskoTren

AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA

Egunero
 Bilbo 06:00 7:00... 20:00
 Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
 * jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan
 Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25
 Jaiegunetan
 Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

ELGOIBAR

SIGMA ● ———— ● ARRIAGA

SIGMA - ARRIAGA

8:00 8:10
 9:25 9:35
 11:10 11:40
 11:20 11:50
 12:10 12:40
 12:20 12:30
 13:10 13:20
 13:20 13:30
 18:20 18:30
 19:10 19:20

ARRIAGA - SIGMA

8:10 8:20
 9:55 10:05
 11:10 11:20
 11:40 11:50
 12:10 12:20
 12:40 12:50
 13:10 13:20
 18:10 18:20
 19:00 19:10

OSASUNA

Anbulatorioa943 03 26 10
 Planning-a943 74 29 50
 Alkoholiko Anonimoak943 74 03 85
 D.Y.A (anbulantzia)943 46 46 22
 Gurutze Gorria943 74 38 64
 Mendaroko Ospitalea943 03 28 00
 Odol Emaileak943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak943 74 04 42
 PESA (Eibar)902 10 12 10
 Taxi geltokia943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua943 74 43 66
 Udal Kirol Patronatua943 74 44 15
 Kultura Zerbitzua943 74 21 58
 Mendaroko Udala943 75 61 00
 Ongizate zerbitzua943 74 10 08
 Udaletxea943 74 10 50
 Udaltzaingoa943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra943 74 16 26
 Kiroldegia943 74 44 15
 Kontsumo Bulegoa943 74 30 88
 Liburutegia943 74 35 25
 Musika Eskola943 74 21 45
 Mintxeta943 74 43 15
 Parrokia943 74 08 42
 Postetxea943 74 15 47
 Gaztetxea943 74 35 72
 Gazte Informazioa943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza943 74 02 96
 Zaharren Biltokia943 74 05 26
 Eguneke Zentroa943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola943 74 21 41
 HHI (EPA)943 74 08 80
 Herri Eskola943 74 08 79
 I.M.H.943 74 41 32
 Institutua

Arreiturre943 74 80 19
 Ezenarro (Meka)943 74 80 19
 Ikastola943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN943 74 41 12
 El Diario Vasco943 74 40 73
 El Correo Español943 74 10 82
 Zazpiki irratia943 74 34 74
 Egunkaria943 30 02 28
 Gara943 31 69 99

Euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten haur eta gazteak laguntzeko "Euskara errefortzuak" programa martxan da

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek, Udalarekin elkarlanean, "Euskara Errefortzuak" programa jarri zuen martxan otsailaren hasieran. Programa honen helburua, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten Elgoibarko haurrei eta gaztetxoei laguntzea da. Horretarako, eskolak bukatu ostean, beraiei zuzenduriko euskara errefortzuak prestatu dituzte mintzamina lantzeko. Haurrei zuzenduriko jolas, abesti, ipuinak eta abar landuko dituzte, mintzamina lantzeko metodologiarik entretenigarriena erabiliz.

Programa hau HH5, LH1, LH2 eta DBH1-2ko haur eta gaztetxoei zuzenduta



dago. Ikastetxe bakoitzeko haurrak ikastetxean bertan jasotzen ari dira saioak, eta DBH-koak berriz, Plaza Txikiko lokalean. Haurrek astean bi saio dituzte, 45 minututakoa bakoitza, eta DBH-koek berriz, astean ordu eta erdiko saio bakarra dute. Momentuz 25 lagunek eman dute izena euskara errefortzu saioetan lau taldetan banaturik: bi Herri Eskolan, bakarra Pilar Ikastetxean eta DBH-koek osatzen dutena Plaza Txikian. Dena dela, norbaitek izena eman nahiko balu ez dago arazorik. Elgoibarko Izarra eman daiteke izena (943 74 16 26). Nerea Larrañagarengatik galdetu



NAIARA MARTIN, 21 URTE
Laguntzailea

"Euskararekiko duten jarrera aldatzea nahi nuke"

Nori zuzenduta dago "Euskara errefortzuak" programa? Euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten haurrei zuzenduta dago. Euskara irakasgai bat gehixo moduan ikusten dabe haur hauek gehixenek eta ez zaie gustatzen. Gure nahixa eguneroko bizimoduan erabili dezaketzen hizkuntza dala kontura daitezela da: euskaraz abestu, jolastu edo edozer egin dezaketela, alegia.

Zein da zure ikasleen perfila? B ereduiko ikasliak dia. Badakite euskaraz baina egiturak, lehen aldixa eta beste zenbait hutsune menperatzia falta zaie. Eguneroko euskara erabiltzen ez dutela igartzen zaie. Gehixenek ingurune erdalduna dake; guraso eta lagun erdaldunak, eta euskara klasian bakarrik erabiltzen dabe.

Zertan datza zehazki? Klasian biharrin etxian egongo balira moduan senti daitezen bilatzen dogu. Oinetakoak kendu arazten dizkiet adibidez, eta andereñoa biharrean Naiara naiz beraientzat, beste bat gehixoa, jolasetan ere beraiekin batera parte hartzen baitut. Galdera erantzunak eskatzen dituzten jokoak egiten saiatzen gara, ikusi-makusiren tankerakoak. Konturatu gabe euskaraz hitz egitera behartzen dituzten jolasak dira.

Zer helburu jarri dituzue? Euskararekiko duten jarrera aldatzearekin konforme nengoke. Dena gaztekeraz hitz egiteki poliki-poliki euskaraz gehixo egin dezatela da helburu nagusixa. Jolasian euskaraz egitera ohitzia eta gelan erraztasun gehixo izatea gustatuko litzaidake. Hemendik ateratzean uneoro euskaraz eitxia litzateke onena, baina momentuz ezinezkua da.

MARIA SANZ, 7 URTE
Ikaslea

"Lagun batzuk ulertzea kosta egiten zait"



Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikaslea da Pilar ikastetxean. Amak apuntatu zuen euskara errefortzu klaseetara, baina aurrez berari galdetu eta baiezkoa eman ziola aitortu digu. Euskarako irakasgaia ez zuen gairitu eta euskaraz hitz egiten ikasteko gogoa zuela dio. Lagunekin gaztekeraz egiten duela aitortu digu, "euskaraz dakiten lagunei ulertzea kosta egiten zait batzutan eta euskaraz egiteko erraztasun gehiago izatea nahiko nuke". Klaseetara gustura joaten da, "jolas eta marrazki asko egiten ditugu eta niri asko gustatzen zait marraztea".

ASIER PEREZ, 13 URTE
Ikaslea

"Euskara gehixo jakinda erabiliko nuke"



Itxura bihurridun ikaslea da. Zintotasunez aitortu digu euskaraz ondo egiten ez dakielako eman duela izena euskara errefortzuetan, "gehixo jakinda lagunekin eta eskolan ere gehixotan hitz egingo nuke euskaraz". Lagunekin ez duela euskaraz hitz egiteko aukera gehiegirik azaldu digu, "gehienek ez dakitelako edo zailtasunak dauzkatelako. Etxian ere ez dakite euskaraz".

"Sinuose eta Urtaroen hotsak" ikuskizuna, gaur, hilak 20, Kultur Etxeko Sotoan

Gaueko 22:00etan hasiko da saioa eta dohainik izango da

Duela zortzi urteko inauterien bueltan sortu zuten Sinuose Patxi Zabaletak eta Iban Urizarrek. Malape tabernan egin zituzten lehen urte haietako aktuzioak. Pasa den urtean "Zinema Itsua" deituriko saioa eskaini zuten Kultur Etxeko sotoan. Gustura geratu ziren emaitzarekin eta iaz hasitako ildo beretik jarraitzeko asmoa dute gaur, hilak 20, Kultur Etxeko sotoan eskainiko duten "Sinuose eta Urtaroen Hotsak" ikuskizunean. Soinuan eta irudimenean zentratu nahi izan dute eta zentzumen batzuk beste batzuen gainetik nagusituko dira bertan. Ikusmenak, esaterako, zeresan gutxi izango du, ilunetan garatuko baita 30-40 minutuko saioa.

Orokorra zen gai bat behar zutelako aukeratu dituzte urtarook, "Lau urtaruen ideia interesgarria iruditxu jakun urtaro



bakoitzak jokua ematen baitzigun. Urtaro bakoitzak sentrazio ezberdinak sortarazten dizkigu eta gure bertsia azaldu nahi izan dogu, hau da, soinu aldetik zer esanahi duen urtaro bakoitzak guretzat. Istorio bat osatu dugu inpresio hauekin, baina bakoitzak bere interpretazioa egin dezake bere irudimenearen arabera. Ez dauka zertan gurearekin bat etorri, ezta gutxiagorik

ere. Azken finean hau zen bilatu nahi genuena. Liburu bat irakurtzerakuan gertatzen dan moduan, norberak ipintzen die aurpegixa eta itxuria pertsonaiei".

Interpretazio irekia

Sinuoseren ikuskizunen berezko ezaugarria interpretazioa irekia da, ikusleen irudimenearen arabera interpretazioa, alegia. "Oso interesgarria iruditzen jaku bakoitzak bere buruan "pelikula" edo istorio propioa osatzia. Bakoitzak ematen dio itxuria gure saioei".

Saioan ez dute instrumenturik joko, aurrez prestatutako musika entzungo da. Hainbat lekutatik bildu duten musika eta soinuak izango dira. "Sartzen ez duguna elkarrizketak dira, mugatu eta despistatu egin baitezakete". Gaueko 22:00etan hasiko da ikuskizuna. Ez da sarrerarik ordaindu beharko, baina puntualitatea exijituko da. Behin saioa hasita ezingo da





Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

karkizano
San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



JOSE pintarak
(Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk Tel: 943 74 12 55 Mobila: 629 44 23

31 lagun joan ziren eskiatzera Bagneres de Luchonera Morkaikorekin

Hurrengo irteera Aralar inguruan trabesia izango da martxoaren 28an

Bagneres de Luchoneko eski estazioan pasa zuten asteburua 31 lagunek Morkaiko Mendizale Taldearekin joanda. Ez zuten iaiz moduan autobusa betetzerik lortu, baina Frantses Pirineoek aurpegiarik onena erakutsi zieten elgoibartarrei, eguraldi zoragarria izan baitzuten pistetan. Bi egunetan eguzki galdatan ibili zirela aipatu digute.

Pista guztiak zabalik aurkitu zituzten, baina elurrez justu xamar. Kanoiei esker mantentzen ei dituzte pistak zabalik. Snowa egitea erabaki zuten bi lagunek



Eguraldia lagun Pirineotako paisaietaz gozatu ahal izan zuten.

izan ezik, gainontzekoek eski alpinoa egitea erabaki zuten. Ohiko ipurdiko eta erortzeez gain, ez zen istripurik izan eta

jendea oso gustura ibili dela azaldu digute Morkaikotik. Eskiatu ostean, iaiztik ezaguna zuten "Pizza Pica" jatetxean afaldu zuten denek larunbat gauean. Pikabea famili euskalduna da jatetxeko jabea. Euskaldunak izan arren, italiar janaria da beraien berezitasuna.

Hurrengo irteera

Morkaiko Mendizale Taldearen hurrengo irteera gertuago izango da, Aralar inguruan trabesia, hain zuzen ere. Amezketeta eta Lizarrusti bitartean izango da martxoaren 28ko ibilaldia.

Elgoibarko Igeriketa Eskolako kideak Legazpiko igeriketa Txapelketan

Elgoibarko Igeriketa Eskolako kideak ligako laugarren jardunaldian parte hartu zuten otsailaren hasieran Legazpin. Dozena bat lagun inguru joan ziren Elgoibartik eta honako hauek izan ziren lortu zituzten denbora aipagarrienetako batzuk. 100 metro bizkar estiloan: Jagoba Egaña (1'52''), Jone Iraola (1'59''), Ainhoa Agirre (2'01''), Eneritz Aizpitarte (2'01'') eta Alejandra Pascual (2'07''). 100 metro bular estiloan: Jagoba Egaña (1'54'') eta Alazne Martinez (1'48''). 100 metroko erreleboetako estilo proban ere hartu zuten parte lau neska elgoibartarrek eta 7'49''27 izan zen lortu zuten denbora.

Borja Diez hirugarren postuan sailkatu zen Eskolarteko Gipuzkoako Kros Txapelketan

Antton Segundok eta Angel M. Lopezek Euskadiko Kros Txapelketan hartuko dute parte

Eskolarteko Gipuzkoako Kros Txapelketa izan zen pasa den otsailaren 15ean Hernanin. Mintxeta Atletismo Taldeko eta herriko ikastetxeetako atleta gazteek parte hartu zuten bertan. Alebin mailako lasterketan Borja Diez, Pilar Ikastetxeko korrikalaria, izan zen elgoibartarrik onena, 1.800 metroko kros lasterketa hirugarren postuan amaituz.

Infantil mailako lasterketari dagokionez, Antton Segundo eta Angel Mari Lopez izan ziren onenak. Arreiturre Institutuko ordezkaria izan zen Antton Segundo seigarren postuan iritsi zen helmugara eta San Bartolome Ikastolako ikaslea den Angel Mari Lopez, berriz, bederatzigarren postuan. 3.000 metroko kros lasterketan hartu zuten parte



biek. Erakutsitako mailari esker, Gipuzkoako selekzioaren ordezkari izango dira bi atleta gazteak Ortuellan izango den Eskolarteko Euskadiko Kros Txapelketan. Otsailaren 29an izango da lasterketa.

Sailkapeneko 5. postuan dago Kenci areto futbol taldea lehen itzuliaren amaieran

Lehen Nazional B mailan jokatzeko duen San Pedro Kenci areto futbol taldea sailkapen nagusiko 5. postuan dago lehen itzuliaren amaieran. Elgoibartarrek 16 partidu jokatu dituzte dagoeneko (8 irabazi, 3 berdindu eta 5 galdu) eta 27 puntu eskuratu dituzte oraingoz. CD Inter Intxaurren talde donostiarra da mailako liderra 38 punturekin eta Sestao F.S taldea da bigarren sailkatua 37 punturekin. Laskurain, laugarren sailkatuaren aurka jokatu zuten azken partidua elgoibartarrek etxean, baina 1 eta 6 galdu ostean, ez zuten gipuzkoarrak sailkapenean gaintzeko aukera aprobetxatu. Kalitatezko taldea izan arren, uste baino okerrago hasi zuten liga txapelketa elgoibartarrek, baina azken partidutan daukaten benetakoa maila ematen hasi eta sailkapenean gora egin dute. Bigarren itzulian ildo beretik jarraitzen badute goiko postuetan egoteko aukera izango dute. Hurrengo partidua bi postu



atzerago dagoen GSI talde bilbotarraren aurka jokatu dute Bizkaiko hiriburuan.

Jubenil mailako Nazional kategorian jokatzeko ari den Magefesa taldea, berriz, 6. postuan sailkatuta dago. 20 puntu dituzte elgoibartarrek, Bilbao UPV liderrak baino 16 gutxiago. Nahiko ondo hasi zuten liga eta lehen postuak lortzearen borrokan egon ziren, baina azkenaldian ez dira oso fin aritu. Momentuz 13 partidu jokatu dituzte eta 62 izan dira sartu dituzten golak, baina kopuru berbera jaso dute.

Ikastolakoak hirugarren Gipuzkoako IX. Pilota Txapelketan



Ezkerretik eskumara txapelarekin: Mikel Arrieta, Julen Ibarluzea, Amaia Belza, Ane Urain, Maria Ferreiro eta Aintzane Arizmendi. Makurtuta, ezkerretik hasita: Josu Espilla, Julen Etxeberria, Asier Gurrutxaga eta Maite

Joan zen larunbatean, hilaren 14an, Gipuzkoako IX. Pilota Txapelketa ospatu zen Oiartzungo pilotalekuan. Taldekako txapelketa honek badu berezitasunik, eskola bakoitzeko 5. mailako bost neska eta bost mutilek parte hartzen baitute eta partaide bakoitzaren garaipenak kontutan izaten dira sailkapen nagusia osatzeko orduan eta

irabazlea aukeratu ahal izateko.

Elgoibar Ikastolakoak eskualdeko eskolen artean irabazle izan zirelako sailkatu ziren finala jokatzeko. Bertan, 20 herritako pilotari gazteen artean hirugarren atera zuten. Sari banaketan Mikel Unanue añorgarra eta Beizamako Kepa Peñagarikano pilotariek jantzi zieten txapela elgoibartarrei.

EMAITZAK

Futbola

Aloza Mendi 2 - Haundi 2 (Pref.)
Elgoibar 1 Ordizia 1 (1. erreg.)
Mondragon 3 Elgoibar 3 (Jub.)
Elgoibar 4 Kostkas 1 (Kad.)
Elgoibar 1 Antiguoko 12 (Inf.)
Elgoibar 5 Salvatierra 0 (Neskak)
Dunboa 2 Elgoibar 3 (Neskak F-8)

Areto futbola

Kenci 7 Laskurain 6 (Nazional B)
Lanbroa 3 Aiete 4 (2. maila)
Berriotxo 7 - Magefesa 5 (Jub.)
Lojantzi 0 Aralar 11 (Jub.)

Esku pilota

Udaberri Saria
Lagunak A 22 Lazkao 16 (Nag.)
Lagunak 22 Mundarro 14 (Jub.)
Lagunak A 22 Hernani 12 (Kad.)
Lagunak B 12 Ikaskirola 22 (Kad.)

Eskubaloia

Tecnifuelle Elg. 29 Zarautz 23 (Sen. mut.)
Pagoaga Elg. 22 Urdaibai 25 (Kad. nesk.)
Cometel Elg. 17 Urdaibai 19 (Jub. mesk.)
Urduliz 22 Tecnomeca Elg. 23 (Kad. mut.)
Urduliz 24 Pneumax Elg. 14 (Jub. mut.)

Idarraga kafeak 7. saria

HAUNDIko jokalarierregularrena 03/04 JOKALARIA PUNTUAK

1- I. Gonzalez	34
2- M. Tarragual	30
3- Arenas	30
4- Arrasate	29
5- Javi Gomez	26
6- Guinea	25
7- M. Gonzalez	21
8- Elkoro	21
9- Navarrete	20
10- D. Rodriguez	19
11- Igartua	19
12- Izagirre	13
13- Leo	10
14- Martija	6
15- Jakes	6

AGENDA

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapataua, 21
15:45 Pagoaga Elg. Zarautz (Kad. nesk.)
17:15 Cometel Elg. Zarautz (Jub. nesk.)
18:45 Antt Softlan Bkl-Caf Beasain (Sen. mut.)

Esku Pilota, Ikastolan

Barixakua, 20
21:15 Lagunak B Ozkarbi (Kad.)
22:00 Lagunak B Olalde (Nag.)
22:45 Lagunak A Ikasberri (Nag.)

Areto futbola, Kiroldegian

Domekia, 22
11:30 Magefesa Gaztelueta (Jub.)

Futbola, Mintxetan

Zapataua, 21
16:30 Haundi Ordizia (Pref.)
18:30 Elgoibar Zarautz (Jub.)

Lana

ESKAERA

- ♦ Tabernan lan egingo nuke arratsaldetan. Euskaraz badakit. ☎ **699 18 32 99**
- ♦ Emakumea nagusiak zaintzeko prest, orduka, fijo edo asteburuetan. ☎ **626 91 49 04**
- ♦ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **943 74 30 56**
- ♦ Gizona arotz moduan edo obrako peoi bezala lan egiteko prest. ☎ **620 074 965 (Luis)**
- ♦ Emakumea ggarbiketara lan egiteko prest, etxeak, portalak... ☎ **666 76 22 95**
- ♦ Emakumea garbiketara lan egiteko prest. ☎ **943 74 22 01 (Araceli)**
- ♦ Emakumea goizez edo arratsaldean umeak zaintzeko prest. ☎ **943 74 27 41**

ESKAINZA

- ♦ Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko pertsona behar da. ☎ **680 669 137 (17:00etatik aurrera)**
- ♦ Asteburuetarako sukaldaria behar da. ☎ **670 25 04 29**
- ♦ Kamareroa behar da asteburuetarako. Esperientziarekin ☎ **652 77 82 10**

Garajeak

- ♦ Garajea alokairuan Arregitorre 6an. ☎ **943 74 12 31**
- ♦ Garajea salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Toletxe taberna azpian. ☎ **943 74 34 49**

Lokalak

- ♦ Bajo bat saltzen da Olasope 4an. Garaje edo almazenerako egokia. 90m². ☎ **639 93 32 81**

Partikularrak

- ♦ Enpresa eta Administrazioa Lizenziatutako 4. mailako ikaslea, klase partikularrak emateko prest. Goiz edo arratsaldean. ☎ **605 77 07 80**
- ♦ Josteko klaseak hartuko nituzke. ☎ **616 76 66 73**

Etxebizitzak

- ♦ Pisua salgai Plaza Txikian. Altzariekin. 2 logela. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita, berritua, dena kanpora begira. ☎ **646 50 28 66**
- ♦ Pisua salgai erdigunean. 3 logela. Berritua. Altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **661 42 60 77**
- ♦ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldaria, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**
- ♦ Pisua salgai Jausoro Plazan. 68m², 2 logela, sukaldaria, egongela, komuna. Dena kanpora begira. Berri berria. ☎ **650 16 77 63**
- ♦ Pisua salgai Santa Klaran. Altzariekin. ☎ **610 68 41 64**
- ♦ Pisua salgai Santa Klaran. 3 logela, egongela, sukaldaria, bainua, eguzkitsua. Dena kanpora begira. Igogailuarekin. ☎ **943 53 17 43**
- ♦ Etxea salgai Arregitorren. 97m². Berritua. ☎ **679 83 04 38/943 74 35 89**
- ♦ Santa Ana kalean pisua salgai. Sukaldaria, egongela, 3 logela, komuna, bi balkoi, berogailua, ganbara. Eguzkitsua. ☎ **661 23 77 11**
- ♦ Neska gazteak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **605 74 13 70**
- ♦ Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **626 91 49 04**
- ♦ Pisua salgai Mendaron. Berria, altzariekin, garaje murraduna eta trasteroa. ☎ **686 045 321**
- ♦ Txabola nahiko handia alokatzen da. ☎ **699 18 32 99/943 74 17 87**
- ♦ Hilaren 16an gizon batek kartera galdu zuen Harzubi taberna eta Sigma auzoa bitartean. Aurkitu duenak Udaltzaingora eraman dezala, mesedez.
- ♦ CD portagailu bat, CDz beteta galdu nuen Nafarroa Plazan. ☎ **610 65 34 52**
- ♦ Elgoibarko bi mutil gaztek lur sailtxo bat alokatu edo hartuko lukete, nahiz eta zikina egon, baina ekonomikoa. ☎ **606 01 42 57**
- ♦ Txakurkume jaiotako berriak oparitzen ditut. ☎ **645 710 111**
- ♦ Perikito hori batek ihes egin zidan astelehenean, hilaren 2an, Urasandi kalean goian, ezkerreko pisuetan. ☎ **943 74 30 52**

Bestelakoak

OHARRA:
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

- ♦ Autorako CD-irratia erosiko nuke, ahal bada Kenwood markakoa. ☎ **639 07 45 42 (Ana)**
- ♦ Panasonic SVH5 bideo kamara salgai. 3 bateria, osagarriak eta bi poltsa. 180 euro. ☎ **606 95 48 32**
- ♦ Citroen C-15 furgoneta salgai. Pintatu berria. 500 euro. Egoera onean. ☎ **943 74 35 26/630 85 03 90**
- ♦ Ezkon soinekoa salgai. 38-40 tailakoa. Marfil kolorea. Osagarri guztiak oparitzen dira. Prezioa adosteko. ☎ **646 37 59 14**
- ♦ Fiat Tipo autoa salgai. Egoera onean. 800 euro. ☎ **943 74 84 69**
- ♦ Seat Alahambra 1.9 salgai. TDI, 110 zaldi, 99koa. Airbag bikoitza, aire giroitua, 7 jarleku eta ohea montatzeko esturktura. ☎ **615 70 05 11 (17:00etatik aurrera)**
- ♦ Ford orion autoa salgai. Diesela. Merke. ☎ **636 98 61 64**
- ♦ Honda Civic VTEC coupe salgai. 3 urte. Egoera oso onean. ☎ **669 81 73 95 (Gorka)**
- ♦ Opel Astra 1400, SS-AM salgai. Egoera onean. 1.800 euro. ☎ **661 81 87 12**
- ♦ Citroen ZX 1900 diesel salgai. 5 ate, aire egokitua, grisa. 93koa. Bizikletak eramateko baka eta baka normala oparitu. 2.705 euro. ☎ **639 780 756 (12:30-14:00/20:00-22:30)**
- ♦ Pragua bat erosiko nuke. Pertsona barentzat edo barentzat. ☎ **943 75 51 47 (gavez)**

ALBERDI

ERREKADISTA ☎ 609 264 705

ELGOIBAR - DONOSTIA (enpresa eta partikularrentzako)

BILKETAK

☐ Paketeak	☐ Gestoria
☐ Sobreak	☐ Komertzioa

GESTIOAK

☐ Ogasuna	☐ Trafikoa	☐ Merkataritzako erregistroa
☐ Diputazioa	☐ Merkataritzako - ganbera	

Agurrak



♦ Zorionak **Asier Odriozola**, atzo, hilak 19, 9 urte bete zenituelako. Gurasoen, lehengusu Unai eta Olatz eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Borja**, hilaren 22an, 13 urte beteko dituzulako. Gurasoen, anaia Ignacio eta lehengusu Mikelen partez.



♦ Zorionak **Aitor Marcosi**, otsailaren 24an, 6 urte beteko dituelako. Gurasoen eta anai-arreben partez.



♦ Zorionak **Julen**, gaur, hilak 20, 4 urte bete dituzulako. Muxu handi bat aitona, amona eta lehengusina Andrea eta Sofiaren partez.



♦ Mila kilo zorion otsailko **lorerik politenari**. Muxu haundi-haundi bat, eta ondo pasau!



♦ Zorionak **Ane** eta **Iker**, 9 urte beteko dituzuelako. Etxekoan partez.



♦ Zorionik maitakorrenak bixori, eta muxu haundi-haundi bana zazpi ipotxen partez.

BEKAK

Ikerketa bekak

Eusko Ikaskuntzak Agustin Zumalabe eta Angle Apraiz ikerketa bekak antolatu ditu ikerlari berrientzat. Beka hauek banakakoek nahiz lan-taldeek eska ditzakete euren ikerketan ondo gaitetako bati buruzkoak badira: Fisika, Kimika, Matematika, Folklorea, Medikuntza, Natur Zientziak, Hezkuntza, Arte Plastikoak eta Monumentalak, Zinematografia edo Musika. Bekaren iraupena gehienez ere urtebetekoa izango da eta zenbatekoa 4.600 euro gordin. Epea: otsailak 28

Garapenerako lankidetzak

Eusko Jaurlaritzak Garapenerako Lankidetzaren alorrean profesionalak espezializatu eta prestatzera bideratutako 6 beka antolatu ditu. Beken iraupena 12 hilabetekoa izango da eta zenbatekoa 18.000 euro beka bakoitzeko. Epea: otsailak 28

LANA

Udaltzainak Zumaian

Zumaia Udalean udaltzainen lan-poltsa sortzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: 18 urte beteta izatea eta 32 urte bete gabe izatea, eskatutako gutxieneko altuera, Eskola Graduatuaren titulua. Lehen mailako Lanbide Heziketa edo titulu baliokidea, B1 motako gidabaimena eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: otsailak 28

Garbitzaileak Usurbilen

Usurbilgo Udalean eraikinetako garbitzaileak aldi baterako kontratatuzko eta lan-poltsa osatzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: Eskola Graduatu edo baliokide bat eta euskarako 1. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: martxoak 1

Urnietako Udala

Urnietako Udalak ondorengo lanpostuak betetzeko oposizio-lehiaketa libreak antolatu ditu: idazkari bat, kontuhartzaile bat eta gizarte-langile bat. Baldintzak: lanpostuaren arabera. Epea: martxoak 1



GAZ-T

AISIALDI TALDEA



ATXUTXI KARAOKEA

Oparien
Zozketa

PLAZA

HAUNDIXAN

Aurten
ordenagailu
bidez



Laguntzaileak:
Elgoibarko Udala,
Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza

20 BARIKAKUA

19:00 ARALAR ALDERDI

POLITIKOAREN AURKEZPENA

Hizlariak: Iñaki Irazabalbeitia eta Joseba Azkarraga Etxegibel

Kultur Etxean

22:00 "SINUOSE ETA URTAROEN

HOTSAK" IKUSKIZUNA

Kultur Etxeko Sotoan

Antolatzailea: Sinuose Taldea

21 ZAPATUA

17:00 KARAOKEA ETA MOZORRO

DESFILEA

Plaza Handian

Antolatzailea: Atxutxiamaika Taldea

19:00 MAUSITXA TXARANGAREN

KALEJIRA

22:00 TRAKETS TALDEAREKIN

DANTZALDIA

Plaza Handian

22:45 MAUSITXA TXARANGAREN

KALEJIRA

24:00 MOZORRO LEHIAKETA

Plaza Handian

Antolatzailea: Gurutze Gorria

22 DOMEKIA

18:00 GELATXO ORKESTRAREKIN

DANTZALDIA

Jubilatuena Biltokian

24 MARTITZENA

15:00 IKASTOLAKO HAUREN

EUSKAL INAUTERIAK

Kalejira eta dantza saioa

Plaza Handian (eguraldi txarra egingo balu, Ikastolako frontoian)

Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

16:30 MOZORROEN ELKARTZEA

Plaza Handian

17:00 POTXIN ETA PATXIN

PAILAZOAK

Plaza Handian (euria egingo balu

kiroldegian)

18:00 SUZKO ZEZEN IKUSGARRIA

Plaza Handian

18:00 GELATXO ORKESTRAREN

DANTZALDIA

Jubilatuena Biltokian

18:30 MAUSITXA TXARANGAREN

KALEJIRA

HITZALDIAK

Aralar Alderdiaren aurkezpena

Aralar Alderdi Politikoak aurkezpen hitzaldia egingo du gaur, hilak 20, Kultur Etxean. Iñaki Irazabalbeitia, Gipuzkoako koordinatzailea, eta Joseba Azkarraga Etxegibel, Bizkaitik kongresurako hautagaia, izango dira hizlariak. Saioa 19:00etan hasiko da.

"Zer da yoga?"

Mendaroko Yoga taldeak "Zer da Yoga?" izeneko hitzaldia eskainiko du Mendaroko Udalaren laguntzaz. Otsailaren 23an, astelehenean izango da hitzaldia udaletxeko Otaerre aretoan (3. solairua). Alfredo Iglesias izango da hizlaria (gaztelera) eta saioa 20:00etan hasiko da.

IKASTETXEAK

Gurasoentzako heziketa programa

Pilar Ikastetxea Udalaren laguntzaz antolatu ohi duen ikasleen gurasoentzako heziketa programa aurten ere gauzatzen ari da. Hilario Garrudo psikologoa izango da zuzendaria eta bi orduko hiru saiotan gauzatuko da programa, astearte eta ostegunetan. Haur Hezkuntzako ikasleen gurasoentzako gaiak honakoak izango dira: "Familia" (1. saioa), "Umearen eskolatzea" (2. saioa), "Gurasoak eta seme-alaben autoestimua" (3. saioa). DBHko ikasleen gurasoentzat: "Nerabearen emanzipazio prozesua" (1. saioa), "baloretan hezitzea" (2. saioa) eta "Nerabearoko jokaera arriskutsuak" (3. saioa).

ZINE
kluba



"La seguridad de los objetos"

Zuzendaria: Rose Troche.

Antzezleak: Glenn Close, Dermot Mulroney, Jessica Campbell.

"Go Fish" ezagunaren egilea dugu Rose Troche. Zinegilearen 3. filmak gurutzatzen diren pertsonaiak eta istorioak pantailaratzen ditu. Pertsonaiek muturreko egoerak eta sentimenduak bizi dituzte eta ezin diete aurre egin eguneroko bizimoduko egitatei ezta patuari ere. Filmaren muntaia Geraldine Peronik egin ditu, egungo muntaigintzan errekonozimendu handiko emakumea, besteak beste Robert Altmanen eta Tim Robbinsen filmetan aritzen dena.

OSPAKIZUNAK

Barrikotea Kimetz Elkartean

9. Barrikotea egingo du Kimetz Elkartean otsailaren 28an, zapatuan. Menua sagardotegietako ohikoa izango da: bakailao tortilla, txuletak eta postrea. Guztia sagardoz bustia. 100 litro inguruko sagardo kupeletik edateko aukera izango dute gerturatzen direnek. Tiketak ohiko tokietan egongo dira salgai. Afarria 21:00etan hasiko da

Sasikopotzu Eguna Mendaron

Ohitura zaharrak berreskuratu nahian Mendaroko In Leike Taldeak Sasikopotzu Eguna antolatu du bigarren urtez jarraian. Otsailaren 21ean, zapatuan, izango da Santakutz parkean. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, Mendaroko trikitilariak eta bertsolariak ikusi eta entzun ahal izango dira sagardoa eta txorizoa dastatzeaz gain. Mozorrorik xebleenak opari sorpresa bat izango du.

IKASTAROAK

"Djembe" danborrak

Gazte Asanbladak "Djembe" danborrak egiten ikasteko ikastaroa eskainiko du. Irakasle brasildarra izango du ikastaroak eta martxotik apirilera bitartean zapatu goizero izango dira klaseak Gaztetxean. Besteak beste, larru zurraketa eta danborraren oinarria egiten ikasiko dute izena ematen dutenek. Gaztetxean bertan eman daiteke izena. Gazte Asanbladatik adierazi digutenez, aurrerago danborra jotzen ikasteko ikastaroa egitea aurreikusten dute.

Barreterapia

Barreterapia ikastaroek aurrera jarraitzen dute. Otsailaren 22an, domekan, izango da hurrengo saioa ohi bezala Aubixan. 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 19:00etara. Bertan barreak osasunarentzat dituen onurak azaldu eta praktikan jarriko dira.

SINADURAK

3.000 bolondres Elkarrirentzat

Elkarrik elkarrizketarako mahai alderdianitz baten aldeko sinadurak biltzeko saiakera berezia egiten dihardu. Sinadurak batzeko 1.000 mahaitik gora atera nahi dituzte kalera otsailaren 28an. Mahai hauetaz arduratzeko eta sinadurak biltzeko 3.000 bolondres behar dituztenez deialdia egin nahi dute interesaturik dauden pertsonen artean. Interesaturik 902 42 10 10 telefonoan eman dezakete izena. Dagoeneko 50.000 sinadura bildu dituzten arren, Elkarriren asmoa martxoa baino lehen 100.000 sinadura biltzea da.

ANTZERKIA

Haurrentzako antzerki musikala Mendaron

"Ane Monna Oskola eta Karramarroi" haurrentzako antzerki musikala izango da zapatu honetan, hilaren 21ean, Mendaroko Goñati pilotalekuan. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da saioa. Ondoren, 18:00etan, txokolatada izango da eta tripa bete ostein diskoteka hasiko da.



ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"El último Samurai"

20, barixakua: 22:15
21, zapatua: 19:30-22:15
22, domekia: 19:30-22:15
23, astelehena: 22:15

"Unibertsolariak"

22, domekia: 16:30

"La seguridad de los objetos"

(Z.K.)

26, eguna: 22:15

"El señor de los anillos 3"

27, barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

"La Casa"

20, barixakua: 19:30-22:15
21, zapatua: 17:00-19:30-22:30
22, domekia: 17:00-19:30-22:30
23, astelehena: 19:30-22:15
24, martitzena: 19:30-22:15
25, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

"La vida que te espera"

20, barixakua: 19:30-22:15
21, zapatua: 17:00-19:30-22:15
22, domekia: 17:00-19:30-22:15
23, astelehena: 19:30-22:15
24, martitzena: 19:30
25, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litekeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



"El último Samurai"

Zuzendaria: Edward Zwick.

Antzezleak: Tom Cruise, Ken Watanabe, William Atherton.

1870. urteko Japonian girotutako filma. Nathan Algren Estatu Batuetako ejertzitoko ofizialaren istorioa kontatzen zaigu bertan. Japoniako enperadoreak Algrenen zerbitzuak kontratatu ditu bere ejertzittoa gerrate teknika modernoetan hesitzeko. Gobernuak Samurai gerlari zaharrak alde batera laga nahi ditu eta garai berrietara moldatu, baina Algrenek Samuraiak gehiago ezagutu ahala gehiago miretsiko ditu. Bi mundu eta bi garairen artean dagoela konturatuko da.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra **Laurentzi Gorostizak** laga digu. Inauterietan gaudenez, egokia iruditu zaigu argazki hau argitaratzea, garai honetako giroa azaltzeko. 1986. urteko inauterietan ateratako argazkia da. Begira zein dotore ageri zaigun mutil koadrila hau. Umorea eta ondo pasatzeko gogorik ez zaie falta. Gogora ditzagun zeintzuk diren gazte hauek.


Zutik, ezkerretik eskumara: **Rikardo Zengotita, Ion Gorriti, Alberto Iriondo, Alex Sasiain, Aitor Zabaleta** eta **Andoni Etxeberria**.


Behean, ezkerretik eskumara: **Jaime Martinez, IonGurutz Gorostiza, Igor Mugerza** eta **Laurentzi Gorostiza**.



I. URTEURRENA

2003ko otsailaren 20an, 89 urte zituela hil zen
JOSE ARAMBERRI MUGURUZAren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan
larunbatean, hilak 21, arratsaldeko 20:00etan.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.





GUREKIN HASI



Matrikulazio epea
Otsailaren 16tik 27ra
Ordutegia: 9:00-19:00
Tel.: 943 74 13 31




GUREKIN HEZI



nsp42elg@planalfa.es



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



MATRIKULAZIOA

2004 - 2005

Haur, Lehen eta Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxetan
OTSAIILAREN 16tik 27ra

Elgoibarco HERRI Eskola

Kalamua, 8

Tel.: 943 74 08 79

E-posta: 012777aa@hezkuntza.net



baikara

Gintzoako Ikastean
Barrusen Federazioa



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA
UNIBERTSITATE eta
IKERKETA SAILA



Elgoibarco Institutua

San Roke, 1 · Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarhi.net